



Curriculum	Ttakun Kultur Elkarte
-------------------	-----------------------

Ttakun Kultur Elkarte (Lasarte-Oria, 2000). 2006tik Hire esku! programa, DBHko ikasleen artean euskararen erabilera sustatzea helburu duen hezkuntza eta animazioko programa. 2003tik Hezitzaileek Asko Egin Dezakete metodologiaren garapena: eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko metodologia. 2004tik Gazteentzako eta haurrentzako programak: Kuadrillategi (Ktg) gazteentzako egitasmoa; udaleku irekiak, txokoak eta gazteen kanpaldiak. 2004tik Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ikastaroak: Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean saioak; Gazteen euskararekiko sentsibilizazioa lantzeko Motibazio Saioak eta Hezitzaileek asko egin dezakete ikastaroak. 2006tik Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko esku hartzeak eta tresnen garapena: Erabili eskuhartzeak; Hezitzaileek asko egin dezakete esku hartzeak; Kuadrillategi (Ktg) Euskal Herrian (Kuadrillategi egitasmoa); Lidergoa eta emozioen kudeaketa. (Eduki metodologikoa) eta Plangintza estrategikoa eta erabileraren neurketarako aplikazioa. (Aplikazio informatikoa).